

LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2026-02-02

BILERA ZENBAKIA: 2

ORDUA ETA LEKUA: 17:30 Itsasondoko udala

PARTEHARTZAILEAK: Elena (Udal zinegotzia), Bihotza (Gizarte Langilea), Amparo eta Maider.

LANDUTAKO GAI ORDENA

Harrera protokoloa eta harrerakideak


Erkudenek idatzitako dokumentuak bileran irakurri eta aldaketa pare bat proposatu ditugu. Erkudeni jakinaraziko zaizkio. Harrerakide sarea sortuko dugu eta mezua bide ezberdinetatik zabalduko da boluntario taldetxo bat osatzeko asmoz. Nagorek idatziko eta zabalduko du deialdia udaleko kanaletik, aldizkarian aipamen labur bat egingo da eta herri bizitzako bileran ere Nereak azalduko du. Behin boluntario taldetxoa dugunean "formazio" bat antolatuko dugu eta bertan harrerakideek jakin beharrekoa azalduko da. Udaletxean errolda berria dagoen unean Bihotzari helaraziko zaio (pertsonak horretarako baimena ematen duen kasuetan), Bihotzak ongizate batzordeko taldean idatziko du eta jarraian, harrerakide sarean antolatuko dugu hurrengo pausua. Harrerakideak txandaka antolatuko dira; hau da, errolda berri bakoitzeko harrerakide bat izendatuko da. Zinegotzi bilieran prozesu berri honen berri azalduko da.

Lehen sorospen ikastaroa:

Desfibriladorea kadukatuta dago eta lehenengo Jabirekin kontaktatuko dugu jakiteko norekin lotu genuen makina jartzea eta, bestela udalarekin zuzenean jarriko ginen harremanetan gai hau argitzeko.

Gazteria foroa:

Inkesten balorazio egin da, emaitzak positiboak izan dira. Aurreko bileran aipatu bezela, beste balorazio mota batzuk jarriko dira martxan. Ongizateko begirada ezinbestekoa da gazteria foroan. Hemendik aurrera, bertako aktak jasoko ditugu.



Etxebizitza:

Familia bat oso egoera larrian bizi da gure herrian eta nola lagundu baloratzen ari gara, errolda soziala tramitatzea baloratu dugu.

Bestalde, mediku etxeko 1go solairuko etxebizitzan prozesua martxan jarriko da.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Harrera protokolo aldaketak		Maiden
Harrera protokoloa zinegotzi bileran azaldu		Elena
Jabirekin kontaktatu (edo udalarekin), desfibriladorea		Maiden
Gazteria foroko akten jarraipena		Bihotza
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera: martxoaren 2an, 17:30etan, udaletxeko bigarren solairuko bilera gelan.		